



Etorkizuna ziurtatuta duten jai herrikoiak, Loiolako Erriberan

Gaur hasi eta igandera bitarte, Loiolako Erriberak bere jai propioez gozatzeko aukera izango du, beste urte batez. Haurrentzat zein helduentzat orotariko jarduerak izango dira datozen egunotan.

✎ Xalba Ramirez Cruz

Azken urteotan izandako dinamika bertsuarekin datoz, aurten ere, Loiolako Erriberako jaiak. Irailaren hirugarren astean, bizilagun dituzten Porrontxoekin batera, auzo —jada ez horren— berriaren jaiak badituzte tradizioak eta «ondo joango direnaren ziurtasuna».

Hori dio behintzat Unai Urkiola auzoko bizilagunak. Urtean zehar Erribertxoren bidez auzoan euska-

raren aldeko jarduerak antolatzeaz gain, jaietan dabilta buru-belarri, beste urte batez.

Afari herrikoiko mozzorro gaia ere badute: turista. «Zer uste duzu, ez direla honaino iristen turistak? Donostiako hotel handienetako bat dugu eta!», dio Urkiolak. Ez dio umore txarrez, hotelak ere jaietan parte hartzen duela jakinarazi du eta, Piknika antolatzen.

Bihar izango den beste jarduera bat nabarmendu du: Erriberatarrak elektrotzaranga. «Ikastolako jaialdian sortu ziren, hainbat auzokide eta gurasoren ekimenez, eta aurten, lehenengo aldiz arituko dira jaietan. Jendea gogotsu dago», aitortu du.

Pregoa, minbiziaren kontra

Pregoa eta txupina auzoko pertsona edo elkarte esanguratsu batek eman ohi izan du. Aurten, AECC Gipuzkoarentzat izango da, minbiziaren aurkako elkartearentzat, hain zuzen. Elkarreak egoitza nagusia ireki zuen auzoan, 2019an: Minbiziaren Aurkako Gune Bizia.

Egoitza berriari esker, minbizia duten pazienteak eta familiartekoak, erietxe girotik kanpo, gaixotasuna gainditu duten pertsonekin erlazionatzen dira, esperientziak partekatuz. Terapia psikologikoa, arlo sozialeko aholkularitza eta beste zerbitzu batzuk jaso ahal izango dituzte, esate baterako, erietxeko laguntza edo material ortopedikoaren mailegua (gurpil aulkia, ohe artikulatuak eta

abar). Urkiolak azaldu duenez, «guztionezko irekia dago espazio hau beti, eta auzotarrekin harreman oso estua du eta garrantzitsua iruditu zaigu jaietan parte hartzea».

Auzoak badu etorkizuna

Auzo berria izatearen sentsazioa dute askotan Loiolako Erriberan. Urkiolak azaltzen du gaztek bizitza auzotik kanpo egiten dutela, eta, adibidez, jaietan ez dutela gehiegi parte hartzen. Baina ez da batere ezkorra: «Etorkizuna haur eta gaztetxoak dira, eta horiek bai, horiek auzoa bizi eta sentitzen dute».

Ehundik gora haur eta gaztetxok parte hartuko dute olinpiadetan bihar

Horren adibide dira bihar egingo diren Olinpiadak. Iaz 100 lagunek hartu zuten parte, eta, aurten ere, izen ematea ireki bezain pronto, «jendetza» animatu dela ziurtatu du Urkiolak. «Zaila da, baina auzo honen identitatea eraikitzen ari gara, eta gutxika jendea inplikatzeko ari da».

«Ikusiko duzu. Jaietara etortzen bazara, kaleak beterik ikusiko dituzu; jai bizi-bizirik dira», dio, baikortasunez. Eta elkarrizketa amaitzeko, «beraz, zer? Jaietan ikusiko dugu elkar?». ●



OSTIRALA 13

17:00-18:45 · Bartzelona hiribidea, 2
Puzgarriak.

19:00 · Bartzelona hiribidea, 34
Pregoia. Eszenatokian jaien hasiera.

19:10 · Auzoan zehar
Zezentxoak haurrentzat eta kalejira auzoko kaleetan zehar, buruhandi eta erraldoiekin.

21:00 · Alkain plazan
Piknika eta DJ. Gaia: 'Giri'.

22:00 · Zambrano plazan
Musika emanaldia: Radio Rebelde.

LARUNBATA 14

09:15 · Auzoan zehar
Donostiako udal txistularien bandaren diana.

11:00-13:30 · Giuseppe Verdi plazan
12 urte artekoentzat jolasak, puzgarriak eta kart autoak.

11:30 · Ikasbide ikastetxean
Basket Askatuak, 12 urtetik gorako gazteentzat.

12:00 · Maria Zambrano plazan
Muxikoak, herri dantza taldea.

13:00 · Giuseppe Verdi plazan
Zezentxoak.



16:30 • Bartzelona hiribidea, 34

VII. Xake Txapelketa, 12-16 urte azpiko kategoriak.

17:00 • Maria Zambrano plazan

XIII. Mus Txapelketa.

18:00 • Lafitte plazan

Haur antzerkia: Erre antzerki taldearen Txikiringito.

18:30 • BPXport Riberasen

III. Gazte Olinpiadak, 12 urtetik gorako gazteentzako.

19:00 • Eszenatokian

Erriberatarrak konpartsa.

19:30 • Eszenatokian

Zumba tailerra.

20:30 • Eszenatoki parean

Parrillada herrikoia.





20:30-01:30 • Eszenatokian

Berbena, Xabi DJ-a.

23:00 • Eszenatokitik Bartzelona hiri-bidea 30-32 eta 37-39

Zezensuzkoa.

IGANDEA 15

11:00-12:30 • Maria Zambrano plazan

Gurpil gainean gozatu.

12:00 • IESU parrokan

IESU abesbatza.

12:00 • Alkain plazan

XII. Patata Tortilla
Lehiaketa.

12:30 • Auzoan zehar

Joselontxos txaranga.

13:00 • Alkain plazan

VI. Riberas Chef.
Haur eta gazteentzako pintxo lehiaketa
(7-10 eta 11-16 urtekoentzat).

14:30 • Alkain plazan

Paella jatea.
Txartelen salmenta La Piruletan.

16:00-18:00 • Lafitte plazan

Puzgarriak.

17:00 • Santiago plazan

Apar festa.

18:30 • Eszenatokian

Sari banaketa.

19:00 • Maria Zambrano plazan

Txokolate jana.

19:00 • Maria Zambrano plazan

Urrutia eta Amanecer
mariachiak.